

BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAREN ANTOLAKETARI ETA JARDUNBIDERAKO BURUZKO ARAUDIA

ATARIKOA / AZALPEN ZATIA

Emakumeek eta gizonak bete izan ohi dituzten roletan aldaketa handiak ari dira gertatzen. Emakumeek lan-merkatuan daukaten partaidetza handiagoa, hezkuntzako maila guztietan egoteko aukera, prestakuntza eta kulturara sarbide handiagoa izatea, eta, hein txikiago batean, erabakiak hartzen diren eremuetara sarbide handiagoa izatea, bada, horiek guztiak emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean aurrera egin ahal izateko aldaketa onuragarriak ari dira eragiten gizartean. Aldaketa hauek lortzeko ezinbestekoak izan dira talde feministen ekarpenak eta emakumeen eskubideen alde lanean jardun izan duten pertsona anonimo askoren ahaleginak.

Hala ere, lan-merkatuko datuek, parte-hartze sozio-politikoak, etxeko lanak egin behar izateak, emakumeen kontrako biolentziak, pobretasunak eta holakoek erakusten digute emakumea dela kaltetuena berdintasun eta justizia gabeko egoeretan, eta honek berdin balio du iparraldeko herrialdeetarako zein herrialde behartsuetarako, nahiz eta azken hauetan egoera oraindik mingarriagoa den. Oraingo erronka da lege testuek formalki aitortzen duten berdintasunerako eskubidea modu praktikoan eta eraginkorrean bermatzea.

Euskadiko Autonomia Estatuaren 9.1. artikulua, Espainiako Konstituzioak ebazten duena bere gain hartuz, berdintasunerako eskubidea eta sexuarengatiko diskriminazio eza aldarrikatzen ditu. Halaber, 9.2.d) artikulua ezartzen duenez, herri aginteei baldintza jarri behar dituzte gizon-emakume eta taldeen arteko berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin.

Bestalde, otsailaren 18ko, 4/2005 Legeak, gizon eta emakumeen berdintasunari buruzkoa, duela gutxi onartu zuena Eusko Legebiltzarrak, mekanismoak eta neurri zehatzak planteatzen ditu euskal administrazio publikoek gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren fenomeno estruktural eta unibertsal hau ezabatzeko politika eta jarduerak eraginkorrak garatu ditzaten. Halaber, herri administrazioei eskatzen die emakumezkoen partaidetza sozio-politiko bultzatzea eta haien jabeakuntzari laguntzea, betiere boterea eskuratzeko eta banakotasuna autonomiatik eta herritartasun osotik egikaritzeko baliozko estrategia gisa.

Berdintasun-politika guztietan nabarmentzen da emakumeen elkartegintza sustatu beharra. Emakumeak ahaleginak egiten ari dira bizitzaren esparru guztietara sartzeko eta hau, berez, aldaketa-eragilea da.

Emakumeen elkarte berriak ari dira sortzen, eta honi esker bizitza publikoan eta erabakitze-postuetan sartzeko aukera dute, orain arte betetzen ez zituzten esparruak hain zuzen ere.

Helburu hau lortzeko, Amorebieta-Etxanoko Udalak **Berdintasunerako Udal Kontseilua** sortu du, hau da, partaidetza bideak ahalbidetzeko berdintasunaren alde diharduten elkarte eta gainerako erakundeen eta Toki Administrazioaren artean eta, betiere, emakumeen presentzia areagotzeko arlo publikoan; udal kontseilu hori araudi honen arabera eraenduko da.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. 1. ARTIKULUA: IZAERA

Amorebieta-Etxanoko Berdintasunerako Udal Kontseilua:

- 1.1. Kontsula eta informazio organoa da.
- 1.2. Araudi honen arabera eraenduko da eta aplikagarri zaizkion gainerako xedapenen arabera.
- 1.3. Autonomia funtzionala izango du udal korporazioaren aldean.

2. 2. ARTIKULUA: XEDEAK

Berdintasunerako udal kontseiluaren xedeak honako hauek dira:

- 2.1. Pertsonen partaidetza bermatzea emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasunaren printzipioa garatzean eta bultzatzean udalerriko bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialaren eremu desberdinetan.
- 2.2. Pertsonen arteko berdintasun-baloreak zabaltzea, sexua dela-eta bereizketarik egin gabe.
- 2.3. Udalaren politikek eta zerbitzuek andrazkoen eta gizonekoen arteko aukera- berdintasuna bermatzea zaintzea.
- 2.4. Euren jatorria, etnia, minusbaliotasun, erlijio, joera sexuala, lanbidea eta abarrak direla eta, era askotako bazterketa pairatzen duten emakume-taldeei benetako aukera-berdintasuna bermatzen zaiela zaintzea.
- 2.5. Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasun printzipioa eraginkor bihurtzea, Amorebieta-Etxanoko bizitza pribatu nahiz publikoan, arlo guztietara hedatzeko: ekonomiara, kulturara, lan mundura, hezkuntzara, gizartera eta abarretara.

II. KAPITULUA: BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAREN ZEREGINAK

3. 3. ARTIKULUA: ZEREGINAK

- 3.1. Berdintasunerako Udal Kontseiluak jardungo duen arloek zuzeneko edo zeharkako lotura izango dute oro har herritarren eta bereziki emakumezkoen bizi kalitatearekin eta gizarte ongizatearekin.
- 3.2. Aurreko artikuluan zehaztutako xedeak betetzeko, Berdintasunerako Udal Kontseiluak honako **zeregin hauek** beteko ditu:
 - 3.2.1. Aukera berdintasunaren aldeko udal plangintzen prestaketa bultzatzea eta horien jarraipena egitea, bai eta indarreko berdintasunerako udal plangintzaren printzipioak betetzea ere.
 - 3.2.2. Aukera berdintasunari dagokionez, sentsibilizazio eta informazio kanpainak egiteko proposamenak egitea, betiere emakumezkoen bizi kalitatea hobetzen lagun dezaketen alderdietan.
 - 3.2.3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko, udaleko politikak gidatu, aholkularitza eta informazio organo gisa.
 - 3.2.4. Emakumezkoen eskubideen garapen eraginkorrari lagun diezaioketen udal jarduketak aztertzea, sustatzea eta zabaltzea eta bi sexuen arteko benetako berdintasun eraginkorra zailtzen duten oztopoak ezabatzea zuzendutako proposamena egitea.
 - 3.2.5. Emakumezkoen arteko asoziazionismoa sustatzea.
 - 3.2.6. Oro har asoziazionismoa bultzatzea, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna helburutzat daukaten taldeen integrazioa sustatuz.
 - 3.2.7. Emakumezkoa sustatzeko jarduerak zuzenean edo zeharka aurrera eramaten dituzten erakundeen eta elkarten arteko kooperazioa eta lankidetzat bultzatzea.
 - 3.2.8. Udal gaietan emakumezkoen partaidetza bultzatzea, haien interesak defendatzeko laguntza eta aholkularitza eskainiz.
 - 3.2.9. Udal kontseiluan ordezkaturik ez dauden pertsonak edo kolektiboak aurkeztu dituzten eta berdintasunarekin zerikusia duten ekimenak eta iradokizunak jasotzea eta bideratzea.
 - 3.2.10. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko egiazko berdintasuna lortzearekin zerikusia duten proposamenak egitea eta neurriak bultzatzea.
 - 3.2.11. Haren eskumenen eremuan eman dakizkiokeen gainerako zereginak.

- 3.3. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren zereginak egikarrituko dira udal gobernuaren organoei bidali beharreko irizpen, txosten edo proposamen bitartez; horiek guztiak gomendioak izango dira eta, horrenbestez, ez dira lotesleak izango.

III. KAPITULUA: BERDINTASUNAREKO UDAL KONTSEILUAREN OSAKETA

4. 4. ARTIKULUA: OSAKETA

Berdintasunerako udal kontseilua osatuko dutenak honako hauek izango dira:

- 4.1. Ondorengo baldintzak betetzen dituzten **elkarreak, fundazioak edota erakundeak**:
- 4.1.1. Legez eratuta egotea eta beharrezko erregistroetan inskribaturik agertzea.
 - 4.1.2. Egoitza Amorebieta-Etxanon izatea.
 - 4.1.3. Irabazasmorik ez izatea eta jardunbide demokratikoko araubideko barne egitura izatea, betiere indarreko antolamendu juridikoaren markoan.
 - 4.1.4. Sexu arrazoiengatik diskriminazioagatik erakunde eskatzailea ez dela administrazio edo zigor zehapenik betetzen ari eta ez dagoela debeku horrekin zigorturik egiaztatzen duen zinpeko adierazpena, betiere Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera (I. eranskinaren eredia).
- 4.2. **Elkarte edo erakundeen atalak**, baldin eta ondorengo baldintza hauek betetzen badituzte:
- 4.2.1. Estatutu bitartez edo haren gobernu organoen erabaki bitartez autonomia funtzionala onetsita izatea, hirugarrenen aurrean ordezkaritza organo propioekin haren eskumen zehatzekoak diren gaietan.
 - 4.2.2. Elkarreak edo erakundeak 4.1. idatz-zatian ezarritako beharkizunak betetzea.
- 4.3. Elkarte, fundazio edo erakunde bakoitzak, edo euren sekzioek, gehienez ere bi ordezkari izendatuko dituzte hizpide eta hautespidearekin; era berean, titular bakoitzaren ordezkoa ere izendatu ahal izango dute.
- 4.4. **Alderdi tekniko edo instituzionalaren aldetik**, honakoak ere kontseiluko kide izango dira:
- 4.4.1. Berdintasunaren arloko zinegotzia, hizpide eta hautespidearekin; kontseiluko burua izango da, behin alkatetzak horrela izendatu eta gero.
 - 4.4.2. Berdintasunaren arloko arduraduna, hizpide eta hautespidearekin; Udal Kontseiluaren koordinatzailea izango da.
 - 4.4.3. Aukera berdintasuneko teknikaria, hizpide baina hautespiderik gabe; Udal Kontseiluaren idazkari zereginak beteko ditu.

- 4.4.4. Udal talde bakoitzeko ordezkari bat, hizpide eta hautespidearekin. Taldeek kontseiluaren idazkaritzan izendatu eta egiaztatu behar izango dute ordezkaturako pertsonaren izena; era berean, ordezko bat izendatu ahal izango dute titular bakoitzeko.
- 4.5. Parekotasun printzipioa errespetatzeko ahaleginak egingo dira parte-hartzaileen generoari dagokionez.
- 4.6. Amorebieta-Etxanoko Berdintasunerako Udal Kontseiluan adituek eta genero berdintasunaren eremuaren barruan balio handikotzat jotzen diren pertsonalitateek parte hartu ahal izango dute, gai jakin eta zehatzak aztertzeko eta horien inguruko aholkularitza emateko. Kontseiluaren gehiagoak hala erabakita parte hartu ahal izango dute. Haien partaidetza zehatza edo aldi baterakoa izango da; horretarako, kontseiluak haien partaidetzaren denbora mugatuko du eta hizpidez hartuko dute parte, baina hautespiderik gabe.

IV. KAPITULUA: BERDINASUNAREKO UDAL KONTSEILUAN SARTZEA ETA KONTSEILUA UZTEA

5. 5. ARTIKULUA: BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAN SARTZEA

- 5.1. Berdintasunerako Udal Kontseiluan sartu nahi duten erakundeek, entitateek eta elkarteek beharrezko eskabidea egin behar izango diote kontseiluaren buruari.
 - 5.1.1. Berdintasunerako Udal Kontseiluak onetsiko ditu bertan sartzeko eskaerak, behin aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero.
- 5.2. Emandako datuen ondorengo aldaketarik egonez gero, hori Berdintasunerako Udal Kontseiluaren idazkaritzari jakinarazi behar izango zaio aldaketak gertatu eta hurrengo hilabetearen barruan.
- 5.3. Berdintasunerako Udal Kontseiluan parte hartzeak berekin dakar araudi hau berez onartzea, elkarteari haren edukien berri ematea eta bileretan erabakitako konpromisoak betetzea.
- 5.4. Berdintasunerako Udal Kontseiluko ordezkariak ez dakar berekin inolako ordainsaririk.

6. 6. ARTIKULUA: BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAREN KIDE IZATEARI UZTEA

- 6.1. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren kide izateari utziko diote ondorengo arrazoiatarik edozeinetan sartzan diren kideak:
 - 6.1.1. Borondate propioa.
 - 6.1.2. Laugarren artikuluan ezarritako baldintzetariko bat galduz gero.
 - 6.1.3. Aurreko 5.2. idatz-zatiak aipatzen dituen datuen aldarazpenak ez jakinaraztea sei hilabeteko epean.
 - 6.1.4. Araudia edo hartutako erabakiak behin eta berriz bete ezean.
 - 6.1.5. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren printzipio eta helburuen kontrako jokabideak, jarduerak edo adierazpenak egonez gero eta kontseiluan hizpidea eta hautespidea duten kide gehienek horrela iritziz gero.
- 6.2. Berdintasunerako Udal Kontseiluko kide izateari uzteko erabakia kontseiluak berak hartuko du, behin elkarteari entzunaldia emateko beharrezko espedientea izapidetu eta gero.

V. KAPITULUA: BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAREN ORGANOAK ETA HAIEN ZEREGINAK

7. 7. ARTIKULUA: BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAREN ORGANOAK

Berdintasunerako Udal Kontseiluaren jardunbide organoak honako hauek dira:

- Lehendakaritza
- Koordinatzailetza
- Idazkaritza
- Bilkura

8. 8. ARTIKULUA: LEHENDAKARITZA

- 8.1. Lehendakaritza emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako politikak bultzatzeko eta garatzeko udal arlo eskudunaren zinegotziak izango du, alkatetzak izendatua.
- 8.2. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren lehendakaritza betetzen duen pertsonak haren ordezkariarik gorena izango du eta honako zeregin hauek hartuko ditu bere gain:
 - 8.2.1. Bilkurarako dei egitea eta haren buru izatea.

- 8.2.2. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren xedeak beteko direla eta haren jarduketak indarreko legeriak ezarritakoari egokituko zaizkiola zaintzea.
- 8.2.3. Berdinketarik egonez gero bozketak erabakitzea eta bilkuretan hartutako erabakiak betearaztea.
- 8.2.4. Kontseiluaren bilkuran jorratu beharreko gaiak proposatzea, eguneko aztergaien zerrenda eginez.
- 8.2.5. Kontseiluaren bilkurara gonbidatzea, hizpidearekin baina hautespiderik gabe, lehendakaritzak edo bokalen erdiak egokituz jotzen dituzten pertsonak, betiere jorratu beharreko gaien arabera.
- 8.2.6. Eman dakizkiokeen bestelakoak.
- 8.3. Huts egin, absentziarik egon, gaixotuz edo legezko bestelako arrazoirik egonez gero, lehendakaritza korporazioko beste kide batek beteko du, idatziz hala ordezkatu eta gero (II. eranskinaren eredua); hori Berdintasunerako Udal Kontseiluaren idazkaritzari aurkeztuko zaio eta horren berri emango da bilkura hasten denean.

9. 9. ARTIKULUA: KOORDINATZAILEA

- 9.1. Kontseiluaren koordinatzailea gizarte ekintzako zuzendaria izango da.
- 9.2. Honako zeregin hauek bete behar izango ditu:
 - 9.2.1. Araudi honen interpretazioaren eta aplikazioaren ondorioz sor daitezkeen zalantzak argitzea.
 - 9.2.2. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren xedeak beteko direla eta jarduketak indarreko arautegiak ezarritakoari egokituko zaizkiola zaintzea.
 - 9.2.3. Bilkuraren bilerak moderatzea eta eztabaidak zuzentzea.
 - 9.2.4. Berdinketarik egonez gero, bozketak erabakitzea eta bilkuraren erabakiak betearaztea.
 - 9.2.5. Korporazioari bilkurak hartutako erabakien berri ematea.
- 9.3. Huts egin, absentziarik egon, gaixotuz edo legezko bestelako arrazoirik egonez gero, lehendakaritza korporazioko beste kide batek beteko du, idatziz hala ordezkatu eta gero (III. eranskinaren eredua); hori Berdintasunerako Udal Kontseiluaren idazkaritzari aurkeztuko zaio eta horren berri emango da bilkura hasten denean.

10. 10. ARTIKULUA: IDAZKARITZA

- 10.1. Idazkaritzan udaleko aukera berdintasuneko teknikariak jardungo du.
- 10.2. Idazkaritzari Berdintasunerako Udal Kontseiluaren administrazio kudeaketa eta kudeaketa teknikoa dagozkio; bilkurara bertaratuko da. Idazkaritza bilkuretara bertaratuta ere, hizpidez jardungo du, baina hautespiderik gabe.
- 10.3. Idazkaritzaren zereginak honako hauek dira:
 - 10.3.1. Lehendakaritzaren aginduz, bilkuren deialdiak prestatzea eta bidaltzea, horiei eguneko aztergaien zerrenda erantsiz eta aurreko bileraren akta.
 - 10.3.2. Artxibo eta erregistro zereginak betetzea, bai eta karguari darizkion bestelakoak ere.
 - 10.3.3. Lehendakaritzari laguntza ematea, karguari darizkion gaiei dagokienez hala eskatzen zaionean.
 - 10.3.4. Bilkuren aktak egitea.
 - 10.3.5. Jakinarazpenak jasotzea, datuak eskatzea, zuzenketak egitea edo bestelako agiriak hartzea, baldin eta haien berri izan behar badu karguaren arrazoiak direla eta.
 - 10.3.6. Berdintasunerako Udal Kontseilua osatzen duten erakundeen erregistroa, ordezkarien eta ordezkoen zerrenda eta organoetako ordezkarien zerrenda gaurkoturik izatea.
 - 10.3.7. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren organoek emandako bestelako zereginak.

11. 11. ARTIKULUA: BILKURA

- 11.1. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren bilkura osatzen dute araudi honen 4. artikulua aitpatzen dituen kide guztiek; izendatutako zinegotziak bilkuraren burutzan edo lehendakaritzan jardungo du.
- 11.2. Bilkura kontseiluaren erabaki-organorik gorena da eta honako zeregin hauek dagozkio:
 - 11.2.1. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren jarduketaren ildo nagusiak zehaztea.
 - 11.2.2. Aurreko bilkuraren akta onestea, hala badagokio.
 - 11.2.3. Berdintasun arloak aurrera eramango duen urteko programa operatiboa iradokitzea eta, hala badagokio, baloratzea.
 - 11.2.4. Amorebieta-Etxanoko Udalarekin lankidetzan jardutea berak antolatutako jardueretan, bai ekimen propioaz bai udal organo eskudunek hala eskatu diotelako.
 - 11.2.5. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren jardunbide arauak onestea, bai eta haren aldarazpenak ere.
 - 11.2.6. Lan batzordeak izendatzea eta koordinatzea eta haien eginkizunak ikuskatzea eta bultzatzea.

- 11.2.7. Organo instituzionalen batek hala eskatzen duenean edo ofizioz, bilkurak gai zehatzei, txostenei, proiektuei, egitasmoei, plangintzei, izaera orokorreko xedapenei edo emakumezkoen interesetan eragina duten bestelako jarduketei buruzko irizpenak eman ahal izango ditu.
- 11.2.8. Udal arlo desberdinei Amorebieta-Etxanoko emakumezkoen interesak defendatzeko eta sustatzeko beharrezko proposamenak egitea, jarduketa guztietan diziplina anitzeko izaera bultzatuz.
- 11.2.9. Berdintasun arloaren talde teknikoak aurkeztu eta gero, Berdintasunerako Udal Kontseiluaren jakinaren ganean jartzen diren diskriminazio salaketak, betiere horiek berdintasun printzipioari kontrajartzen bazaizkio edo emakumezkoak iraintzen badituzte.
- 11.2.10. Erakunde berriak sartzeko eskabidea onestea, bai eta sartuta daudenak kanporatzea ere, 5. eta 6. artikuluek ezartzen dutenaren arabera.
- 11.3. Kontseiluak bere lana antolatu ahal izango du lan batzordeen arabera, betiere bertan eztabaidatu beharreko gaiak kontuan harturik.

VI. KAPITULUA: BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAREN JARDUNBIDEA

12. 12. ARTIKULUA: JARDUNBIDEA

- 12.1. Berdintasunerako Udal Kontseilua hiru hilabeterik behin bilduko da ohiko izaeraz, behin lehendakaritzak beharrezko deialdia egin eta gero; era berean, ezohiko izaeraz bilduko da lehendakaritzak hala erabakitzen duenean.
- 12.2. Ohiko nahiz ezohiko bilkuretarako deialdia 7 egun lehenago egin behar da, baldin eta presazko izaerarik ez badute; azken kasu horietan deialdiak tarte laburragoan egin ahal izango dira.
- 12.3. Berdintasunerako Udal Kontseilua baliozkotasunez osatuko da lehenengo deialdian kideen gehiengoa bertaratuz gero eta bigarreanean bertaratutako kideen kopurua edozein izanagatik ere; edozein kasutan, lehendakariaren, koordinatzailearen eta idazkariaren asistentzia beharrezkoa izango da.
- 12.4. Deialdiarekin batera, lehendakariak ezarritako eguneko aztergaien zerrenda bidaliko da; era berean, bilkura egiteko data, ordua eta tokia adieraziko dira eta beharrezko dokumentazioa erantsiko da.

- 12.5. Eguneko aztergaien zerrenda lehendakariak egingo du egokitzat jotzen dituen edota Berdintasunerako Udal Kontseiluak osatzen duten pertsonak, lehendakaritzaren adostasunez, proposatzen dituzten gaiak txertatuz.
- 12.6. Eztabaidatu beharreko gaiak beharrezko edo komenigarri egiten dutenean, bileretara adituak bertaratu ahal izango dira edo jorratu beharreko gaiekin zerikusia duten erakundeetako ordezkariak, hizpidearekin baina hautespiderik gabe, behin lehendakaritzak baimendu eta gero.
- 12.7. Erabakiak ohiko bozketaren bitartez hartuko dira; bertarutzen diren eta bozkatzeko eskubidea daukaten pertsonak abstenitu ahal izango dira.
- 12.7.1. Bozketaren ondoren, berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.
- 12.8. Botoa pertsonala da eta ordezkazina.
- 12.9. Erabakiak bertaratuko pertsonen gehiengo soilaz hartuko dira.
- 12.10. Euskararen erabilera bermatuko da.
- 12.11. Aurreko artikuluetan ezarri ez denari dagokionez, aplikagarria izango da Toki Erakundeetako Antolaketa, Jardunbide eta Araubide Juridikoari buruzko Araudian organo osagarrien jardunbideari begira ezarritakoa.

VII. KAPITULUA: BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAREN DESEGITEA

13. 13. ARTIKULUA: DESEGITEA

- 13.1. Kontseilua udalaren osoko bilkuraren erabakiz desegingo da, indarreko antolamendu juridikoarekin bat etorriz.

VIII. KAPITULUA: HERRITARREN PARTAIDETZA

14. 14. ARTIKULUA: INFORMAZIOA

- 14.1. Amorebieta-Etxanoko Berdintasunerako Udal Kontseiluak herritarrei jakinaraziko die zein den organoaren kudeaketa eta zeintzuk haren jarduketa eremuarekin zerikusia duten gaiak; horretarako, haren esku dauden eta egokitzat jotzen dituen baliabideak eta informazio egintzak

erabiliko ditu. Halaber, herritarren iritzia jaso ahal izango du eztabaida, bilera, kontsulta edota inkesten bitartez, eta egokitzat jotzen dituen bestelako baliabideen bitartez ere.

14.2. Amorebieta-Etxanoko herritarrek eta udalerriko elkarteek Berdintasunerako Udal Kontseiluko bilkuretan parte hartzeko eskatu ahal izango dute, jarduketak aurrera eramatea proposatzeko asmoz.

14.2.1. Eskabidea idatziz egingo da eta lehendakaritzari zuzenduko zaio; gauzak horrela, formulatu nahi denaren berri emateko asmoz, beharrezko informazioa edota dokumentuak erantsiko zaizkio.

14.2.2. Eskabidea deialdian sartuko da, behin lehendakaritzak baloratu eta gero. Parte hartzeko ukorik egonez gero, lehendakaritzak horren inguruan informatuko du eskabidearen ondorengo kontseiluaren lehendabiziko bileran.

14.2.3. Parte hartzeko eskabidearen inguruko ebazpena idatziz jakinaraziko zaio erakunde edo pertsona eskatzaileari.

14.2.4. Kontseiluko bilkuran parte hartzeko eskabidea baietsiz gero, eskatzaileak euren proposamena aurkeztera eta egitera gonbidatuak izango dira.

14.2.5. Proposamenaren inguruko erabakia modu formalean jakinaraziko zaio hori proposatu zuen erakunde edo pertsonari.

XEDAPEN IRAGANKORRA

- 1) Berdintasunerako Udal Kontseiluak formaltasunez eratuko da horretarako deituko den eraketa deialdiaren bitartez.
- 2) Kontseiluaren lehendakaritzari ahalmenak ematen zaizkio, araudi honetan ezarritakoaren aplikazio edota garapenerako beharrezko xedapen edota jarraibideak emateko.

Amorebieta-Etxanon, 2012ko apirilaren 11n

ALKATEA,

Izpta.: David Latxaga Ugartemendia

I. ERANSKINA: ZINPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ (izen-abizenak),
_____ (a)ren izenean (erakundearen izena)

Zinpean adierazten dut ordezkatzeko erakundea:

- 1.- Ez dela administrazio edo zigor zehapenik betetzen ari sexu arrazoiengatiko diskriminazioaren ondorioz eta ez dagoela zigortuta Emakumezkoen eta Gizonezkoen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-bide ebazpen honetan ezarritako laguntzak jasotzeko debekuarekin.
- 2.- Ez dagoela zigorturik diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukeraren galerarekin eta ez dagoela sarturik horretarako ezgaitzen duen legeko debekuren batean.

Eta horrela ager dadin, honako agiri hau sinatu dutn,ko
.....(a).....(e)an.

Sinadura eta zigilua:



II. ERANSKINA: ORDEZKARITZA EREDUA

Berdintasunerako Udal Kontseiluak(e)ko.....(a)ren(e)an egingo duen bilerari dagokionez,(1)
,.....(2) jaun/andreak adierazten du, ezin bertara daitekeenez, ORDEZKARITZA eskuordetzen diola jaun/andreaki.

Horrela ager dadin, honako agiri hau izenpetu dute Amorebieta-Etxanon,(e)ko(a)ren(e)an

Izpta.: jaun/andrea
Ordezkatzen du

Izpta.: jaun/andrea
Ordezkoa

- (1) Ordezkatzen duen pertsonaren izen-abizenak
- (2) Kargua.